

Deskribapen objektiboak eta subjektiboak.

Adierazi / Klikatu deskribapen objektiboak:

Gizotsok atzapar luzeak ditu eta gorputza ilez beteta, hau da, iletsua da.

Mariren begiak izugarri politak dira.

Galtzagorriek praka gorriak eramaten dituzte.

Basajaun gizaki handia da, eta beldurra ematen dit.

Tartalok begi bakarra duen pertsonaia da.

Lamiak zetazko ile liraina du.

Herensugek zazpi buru dituen animalia handia da.

Akerbeltz bi adardun animalia da, eta oso handia.

Zezengorri handiegia da ona izateko.

Olentzerok opari desiragarriak ekartzen dituenek, guztion gustukoa da.

TARTALO

Begi bakarreko izaki gaiztoa da. Haitzuloetan bizi da, eta gazteak harrapatu eta irensten ditu. Greziar mitologiako ziklopeetan du jatorria.

GALTZAGORRIAK

Oso tamaina txikiko gizon eta emakumeak dira, eta nagusiek agintzen dieten guztia egiten dute. Izenak adierazten duen bezala, galtza gorriak izan ohi dituzte, eta oso aktiboak dira.

LAUBURUA

Argi dago eguzkia irudikatzen duela, baina beste intrerpretazio baten arabera, eskuinera begira badago, bizitzaren sinboloa da, eta ezkerrera begira badago, berriz, heriotzaren sinboloa.